

KIROLDEGI BERRI BAT LEIOARENTZAT

MODERNOA

FUNTZIONALA

ARGITSUA

EKOLOGIKOA



KIROLDEGI BERRIAK

LEIOAKO HERRITAR ETA KLUB GUZTIEN BEHARRIZANEI ERANTZUNGO DIE

**LEIOAK BADU DAGOENeko KIROLDEGI
BERRIAREN PROIEKTUAREN IDEIAREN
IRABAZLEA; LEIHONA0048 LELOAREKIN
AURKEZTU ZEN.**

**AZPIEGITURA IREKIA, MODERNOA ETA
JASANGARRIA DA, LEIOAZTARREN NAHIZ
HERRIKO KIROL TALDE UGARIEN BEHARRAK
BETEKO DITUENA.**



EZAUGARRIAK



MODERNOA

Arkitektura, soila, elegantea eta gaur egungoa duen ekipamendu berria izango da; hain ingurune berezian duen eragina zaintzen du, eta Leioarentzat ikusizko erreferentzia berri bihurtuko da.



FUNTZIONALA

Herritarren nahiz Leioak dituen kirol klub ugari eta askotarikoen eskaerei erantzuten die. Barnealdeari dagokionez, erabiltzaile mota bakoitzaren beharrei erantzunda antolatu da, bai eta ikusleen balizko sarrerei begira ere, izan kirol jarduerak ikusteko nahiz ekitaldi handiak ikusteko.



ARGITSUA

Kanpoaldera irekitako eraikina da, argia eta bentilazio naturala berma dadin; kirola egiteko leku atseginak sortu dira, inguruko ikuspegiez gozatzeko aukera ematen dutenak.



EKOLOGIKOA

Energia kontsumo garbi nulua duen eraikina da, %100 deskarbonizatua; gainera, arreta berezia jarri da erabiliko diren materialetan eta osagaietan, ekologikoki arduratsuak izan daitezen eta luze iraun dezaten, hartara, instalazioen bizitza erabilgarria luzatzen dela bermatzeko. Bestalde, haien bizi-zikloak ia ez du azterna ekologikorik.



DATU OROKORRAK

Proposatutako eraikinak honako hauek ditu:

- **Ur xafla:** igeri egiteko, irakaskuntzarako eta plisti-plasta ibiltzeko hainbat putzu, eta harmailak.
- **Kirol pabiloia eta harmailak:** eskubaloian, areto futbolean, areto hockeyen, saskibaloian, minibasketean, badmintonean, tenisean eta boleibolean jokatzeko luzetara, eta zabaletara, badmintonean, boleibolean, saskibaloian eta minibasketean jokatzeko. Era berean, gimnastika erritmikoa egiteko ere balioko du, bai eta ekitaldiak egiteko ere.
- **Estalitako frontoia eta harmailak:** gimnastika, gimnastika erritmikoa, eskrima, judoa, taekwondoa, mahai-tenisa eta borroka praktikatzeko balioko du.
- **Gimnasioa edo muskulazio gela:** 1.000 m²-ko azalera, gutxi gorabehera.
- **Erabilera anitzeko eta konpartimentutan banatzeko gelak:** besteak beste, taldeko jarduera hauek egiteko: yoga, spinning, aretoko dantzak eta antzekoak.
- **Tatamidun gela:** judoa, taekwondoa edo aikidoa egiteko, besteak beste.
- **Rokodromoa-Boulderra:** eskaladan aritzeko.

Gaur egungo eta etorkizuneko biztanleen beharrei erantzuteko dimentsioak dituen instalazioa da.
ERAIKINAREN AZALERA: 27.195 m².



Gainera, aurreikusita dago kiroldegi berriari **ludoteka, kafetegi-jatetxea, administrazio gunea** eta **bilera gela jartzea**, instalazioetan diharduten dituzten kirol taldeek erabil ditzaten, eta dokumentazioa gordetzeko beren lekua izango dute, gainera.

Etorkizuneko kiroldegia, **Leioa osatzen duten auzoei dagokienez, erdiguneko puntu batean dago**, eta, beraz, aukera egongo da oinez, bizikletaz, Lejoanbusez edo norbere ibilgailuan iristeko.

Aurreikusten da lanak egiteko epea 25 hilabete baliadunekoa izatea, hasten direnetik. Eta gutxi gorabeherako aurrekontua 32.512.815 € gehi BEZa da.





INSTALAZIOAK ERABILTZEN DITUZTENEI AURRETIAZKO GALDERAK

Proiektu hau eta gainerakoak egiteko, Leioako Udalak aurrez egindako beharrianen txostena hartu behar izan zuten oinarri projektugileek; azterketa hori egiteko, herritarrekin, Leioako kirol instalazioen erabiltzaileekin eta Leioako kirol elkarteekin topaketak eta inkestak egin ziren, guztien beharriaz egokitutako kiroldegi bat egiteko.

Guztira, **700 elkarrizketa egin zitzaizkien telefonoz kirolariei** eta kirol instalazioen adin txikiko erabiltzaileen gurasoei/tutoreei. Horrez gainera, **325 elkarrizketa pertsonal egin zitzaizkien 16 urtetik gorako leioaztarrei**. Azkenik, **34 elkarrizketa ireki pertsonal egin zitzaizkien udalerriko kirol elkartei nahiz ikastetxeei eta hezkuntza zentzoei**.



Leioa
KIROL-ETORKIZUNA
bizitza osasungarria

HURRENGO URRATSAK

Epaimahaiak proposamena aukeratu ondoren, egun behar diren administrazio izapideak egin behar dira, dagokion kontratua sina dadin egileen taldearekin. Orduetik, 10 hilabeteko gehieneko epea izango dute proiektua idazteko, eta, horrenbestez, 2022 amaieran, lanak lizitatzeko izapideak abiarazi ahal izango dira.